

Prest!



BERBETAN: **NEREA CUBILLO - JON INTXAURRAGA** BERBAIZU EUSKARA ELKARTEA
ERREPORTAJEA: **ERREFUXIATUEN DRAMA, HERRITARRON KONPROMISOA** BARKUA: **'INUNDACION'**

172-173-174-175-176-177



Prest! izan

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

Harpidetu
urtean 25€

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com



Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefona:

Harpidetza
Txartela

Babesleak











EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



aurkibidea

	Maitane Muñoz - Irati Antepara   	Iritzia	4
	Desi Linares Betemit 	Gurera etorria	5
e	erreportajea Errefuxiatuen drama, herritarron konpromisoa <i>Azken urtean errefuxiatuen aldeko hainbat ekintza antolatu ditu Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformak.</i>		6
	Deustuko ikastola 	Eskolak	10
	Etxezuriko futbol zelai zaharrak ehun urte 	Behin batean	12
	Jaiak, inoizko eskaintza handienarekin 	Artikulua	14
b	berbetan NEREA CUBILLO URKIZU ETA JON INTXAURRAGA GRIJELMOREkin <i>Aurten Deustuari Euskara Dariola-Berbaizuk 25 urte betetzen ditu, eta apirilaren 1ean 25 urte eta haZSten eguna ospatuko dute Deustuan.</i>		16
	Erritmo onean hasieran, 1953 	Irudiak berbetan	21
	IBILBIDEAK Emakumeak protagonista dituen paseoa SAREKADA Klik eta klik PINTXODROMOA Aroa-Botikazar gastrotaska KULTUR TXOTX Luken Lamikiz Ibarra eta Igor Ciriza Allue	 barkua bete herba	24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria:

Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez

Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola

Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona

Publizitatea: Ninbe Moreno

Diseinua: BOST

Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

Maitatzen duen herria ez da inoiz hilko!

Gaur, martxoak 15, Sandra Barrenetxeak bere torturatzaileen aurrean deklaratu du. Gaur, zazpi urte eta gero, Sandrak jipoitu, iraindu, biluztu, umildu zuten guardia zibilak begietara begiratu eta seinalatu ditu: zuek torturatu ninduzuen! Gaur, Sandrak epaitegietara heldu ez diren salaketa guztiengatik seinalatu ditu bere torturatzaileak.

Azkenengo asteetan iraganeko mamuak bueltatu dira askorentzako; torturak, jarraipenak, atxilotetak, erasoak... Bizipen horien arrakalak sendatzen lortzea zaila izaten da. Horregatik, lerro hauek zuentzako dira eta bereziki zuretzako Sandra, zuretzako eta zu bezala kalabozoan torturatuak izan diren emakume guztiengatik.

Hala ere, gaur epaitegian ez guardia zibila, ez epailea, ez abokatuak ere, ez dira konturatu. Sandra, ez dira konturatu deklaratzeko zeunden bitartean, malkoen artean bakarrik ez


zeundela. Gertu-gertu, estu-estu ehunka euskaldun zure ondoan eseri garea. Ehunka kilometrotatik ere, hormigoia gaintuz, maitasunez beteriko besarkadak jaso dituzula. Sufritu eta sufritzen duen herria izan arren, maitatzen duen herria ere bagarelako.

Zalantzarik ez dago Euskal Herria maitasunaren herria dela. 2008an Hernaniko alkateak "MAITE ZAITUZTET!" ozen oihukatu zuen. "Maite zaituztegu!" hori torturatuak izan ziren beste bi kideei eskainia zen. Audientzia Nazionalak terrorismoaren goraipamena egotzi zion alkateari.

Maitasuna iraultzeko tresna bihurtu da, baita iraultza apur bat gozotzeko ere. Horregatik, urrunegi zaudetenak, erbeste zaudetenak, bahituta zaudetenak, senideak, torturatuak, jarraipenak jaso dituzuenak... Maite zaituztegu! Sandra, maite zaitugu!



Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea



Pantaila baten aurrean

Gaur, astero bezala, metroan sartu naiz. Ez da denbora asko igaro gauza batez ohartu naizen arte: nire bagoi berdinean zihoazen guztiak mugikorra eskuan zeramatzen eta haien begiak bertan itsatsita zeuden txateatzen zuten bitartean. Beste askok ere belarrietan aurikularrak zermatzaten, inguruan zituzten pertsona guztiengandik aislatu edo banatu nahi izango balute bezala. Irudi benetan triste iruditu zait lagun talde batean bakoitza bere mundu birtualean sartuta ikustea, elkarrekin hitz egin gabe, nahiago baitute haien lagunei whatsapp bidez hitz egin elkar ikutu eta laztandu beharrean. Tamalez, egoera hau ez da

soilik metro bagoi batean gertatzen, oso ohikoa da edozein tokitan liburu elektronikoa, mugikorra, iPod0a edo edozein gailu elektronikoa etengabe erabiltzen dituzten pertsonak ikustea.

Honen ondorioz bihurtu gara robotak, bidegabekeriaren edota injustizien aurrean erraz manipulatzeko robotak. Orain bakoitza pantaila baten aurrean dagoen bitartean musu, laztan eta besarkadarik gabe geratzen ari gara. Hau dena galtzeko prest? Ni ez.





Desi Linares Betemit

Jatorria: Santo Domingo (Dominikar Errepublika)
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: tabernaria



“Etxetik ez irtetetik etxean ez sartzera pasa nintzen”

Albaceten eta Valencian bizi izan zara eta gaur egun Deustun bizi zara. Zergatik utzi zenuen Dominikar Errepublika?

Nire izeko batek etortzeko esan zigun. Nire ama etorri zen lehenik, eta bi urtera etorri ginen familiako gainerakoak. Nire aita Albaceteko herri batean bizi da egun eta nire ama Valencian.

Hasieran zerk harritu zintuen gehien?

Ni hiritarra naiz, eta hegazkinetik mendiak baino ez nituen ikusten. Ez nuen gustuko paisaia, eta itzultzea nahi nuen. Egun hartan Dominikar Errepublikarako hegaldia bazegoen, baina nire amak ez zidan ezer esan.

Zelakoa izan zen egokitzea?

Lehen sei hilabeteak negarrez eman nituen nire gelatik irteteko gogo gabe. Jendea ezagutzera animatu ninduten, kalera irtetera, erosketak egitera, eta horrela lagun asko egin nituen. Etxetik ez irtetetik etxean ez sartzera pasa nintzen.

Kanpotarra izanik jendea ezagutzea erraza al da?

Kosta egiten da apur bat. Nik orduan 16 bat urte nituen. Nire ahizpa esaterako txikiagoa zen, eta askoz errazago egokitu da.

Zergatik hautatu zenuen Deustu bizitoki moduan?

Lan bila hasi nintzen, eta Deustun bi ume zaintzeko

lana lortu nuen. Lan horretatik senarra eta umeak irten zitzaizkidan. Bi urte eta erdi pasa dira ordutik.

Ostalaritzan egiten duzu lan, izeki tabernan. Zer ematen dizu lanak?

Eskolatik etxera eta erosketak egitera baino ez nintzen irteten, eta lanari esker jende asko ezagutu dut. Hilabete gutxi batzutarako lana zena ia bi urte luzatu da. Ondo nago, oso gustura egiten dut lan.

Pertsona itxiak gara euskaldunak?

Nik ezagututakoaren arabera ez.

Parranda giroan badago desberdintasunik bertako eta Dominikar Errepublikaren artean?

Dominikar Errepublikan gazteak gauerdiraino ibiltzen dira parrandan diskoteketan. Askoz mugatuago dute orduetgia, eta horregatik etxe inguruko *colmadones*-etan egoten dira lagun artean. Hemen, aldiz, gazteak libreago ibiltzen dira goizaldera arte.

Gustuko dituzu Deustuko jaiak?

Bai, oso. Askotan etxera joateko gogorik ez dut izaten. Brugal laranja zukuarekin eta koko urarekin edaten nuen nire herriko jaietan. Baina hemen ez dago koko urik eta, gainera, hona inportatuta iristen den kokoak ez du antzik Dominikar Errepublikakoarekin. Nire amamaren etxean

kokoa, mangoa eta gereziak hartzen ditugu, eta zapoz desberdinak dira.

Asko al zarete Bilboaldean bizi zaretan Dominikar Errepublikako herritarrek?

Ez, nik gutxi batzuk baino ez ditut ezagutu. Elkartu izan garenean “*mama huevo*” esaten diogu elkarrri. Badakit Bilboko taberna batean elkartzen direla zenbait, emigratu eta bakar samar sentitzen direnak une atsegin bat konpartitzera.

Dominikar Errepublikaren egoera zein da?

Krisian dago beste herri asko bezala, baina ez dago jakiterik zehatz. Facebookera konektatzen naizen bakoitzean itxura berriarekin ikusten dut. Ez dakit gu hemen ez gauden eurek han baino okerrago.

Zertan dute antza Dominikar Errepublikak eta Deustuk?

Urañen aldiak, abuztutik azarora, euri eta haizea ohikoak dira han, eta eguraldi horrek badu antz apur bat hemengoarekin.

Musika eta dantza kontuetan antz gutxi.

Bachata, merengue, salsa, perico ripiau... dantzatzen da han, baita hemen ere geroz eta gehiago. Reggaetona, adibidez, guk betidanik ezagutzen dugu. Dominikar Errepublikako etxeetan musika ozen entzun ohi da, eta auzokideak ez dira kexu. Abantaila da hori.

Testua
Lur Mallea



ERREFUXIATUEN DRAMA

HERRITARRON KONPROMISOA

Azken urtean errefuxiatuen aldeko hainbat ekintza antolatu ditu Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformak. Ildo horretan Deustualdean sortu berri den Bost Auzo taldea ere indarra hartzen hasia da herritarrak sentsibilizatzeko asmoz. Apirilean beste hainbat talderekin elkartuko dira Gernikan munduak beren salaketa ozenago entzun dezan.

Testua
Nuria Arroyo
Argazkiak
Amaia Mintegi
Ecuador Etxea
Ongi Etorri
Errefuxiatuak
Bizkaia

Azkenaldian, askotan entzun ditugu komunikabideetan 'errefuxiatu' hitza eta errefuxiatuen inguruko berriak. Oso gutxitan aldiz, errefuxiatuen egoera salatzeke hainbat taldek egindako lanaren ingurukoak. Talde horietako bat da Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataforma. Talde guztietan gertatu ohi den bezala, jende kopuru gutxirekin hasi zen, sindikatuak eta elkarte ezberdinak izan ziren deialdia egin zutenak, mugitzen hasi zirenak, Europatik etorri zen manifestaziorako deia zela medio. Asanblada bat antolau zuten iazko otsailerako eta lortutako parte-hartzaileen kopurua ikusita animatu ziren bai manifestazioa konbokatzen, bai

manifestaldia eta gero plataforma bat osatzen ere.

Plataforman parte hartzen zuten pertsonak, auzoetara hurbiltzeko beharra ikusita, Bost Auzo lantaldea eratu zuten Deustu, San Inazio, Arangoiti, Elorrieta eta Ibarrekolandako boluntarioekin. Badaramate sei hilabete eta jada hiruzpalau hitzaldi, giza-kate bat eta zenbait pintxo-pote antolatu dituzte. Aurrera begira, Deustualdean bide luzea daukate egiteko; izan ere, badaude oraindik taldearen existentziak ez dakitenak, eta horrek zabaltzeko prozesuan arreta handiagoa jartzera behartzen ditu.



Taldean denak dira boluntarioak. Areago, orain arte antolatutako ekintzak beraien poltsikotik ordaindu dituzte. Ez dago hierarkiarik, denak maila berean daude. Bakoi-tzak ahal duen neurrian parte hartzen du, guztiek ez dutelako denbora berdina. “Zorionez jubilatuta asko daude plataforman eta denbora gehiago daukate guk baino”, aitortzen du plataformako bozeramaileetako bat den Nati Ovelleirok. Baina gero eta jende gazte gehiago hurbiltzen ari da, bai ekintzetara, bai asanbladetara ere.

Egiten duten lana ez da lan humanitarioa, egunero telebistako iragarkietan ikusten diren Gobernu Kanpoko Erakundeena bezalakoa. Beraien lana ez da beste elkar-teen lana ordezkatzeko, baizik eta hiritarren artean mezu bat zabaltzea: “Gerrarik ez”. Horretarako informazioa herritarrei helarazi, sentsibilizatu, zurrumurruek kontra jo, eta hemendik gertu gertatzen diren ekintzetan laguntzen dute.

Euskal Herriko eta Espainiako hainbat talde-ekin harremanetan ere badago Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak. Iazko uztailan haiekin ados jarri eta Greziarako karabana-bidaia antolatu zuten plataformako kideek, beraien salaketa bide osoan zehar igorrit

eta Grezian bertan hainbat ekintzen bitartez zabalduz. Karabana horretan parte hartu zuten Amaia Mintegi gazte deustuarrak kazetari lana egiten. Bere lehenengo kontak-tua plataformarekin iaz gertatu zen, *Uriola*-n praktiketan zegoela karabanaren inguruko bideo bat egiteko asmoz bertako kide batekin elkarrizketatu zenean.

Aurretiaz Amaiak bazeukan gaiaren inguru-ko informazioa, baina eskasa, komunikabideetan entzundakoa edo ingurukoek kontatutakoa. Pertsona horrekin hitz egin ostean errefuxiatuen inguruan interesa arago-tu zitzaion, eta karabanaren erreportaje eta bideogile gisa joateko proposatu ziotenean, ez zuen zalantzarik izan. Esperientzia horre-tatik *Greziarako karabana* dokumentala eta argazki erreportajea irten ziren –argazkiak Espainian zehar hainbat lekutan erakutsi ondoren, Bilbon aurki egongo dira ikusgai Adaxkan–. Orduetik, plataforman jarraitzea erabaki zuen, eta ikus-entzunezko proiektuetaz arduratzen da gehienbat.

Baina hori ez da Mintegik egin duen bisita bakarra ekialdeko herrialdera. Zapareak proiektuarekin bueltatu zen Greziara, Chios irlara, Souda kanpamentuan zeuden erre-fuxiatuei janaria sukaldatu eta banatzeko,

“Oso gogorra da jendea ikustea esperantzarik gabeko leku batean”

erabat boluntario. “Oso gogorra da jendea ikustea esperantzarik gabeko leku batean non sei hilabete edo denbora gehiago dauden euren familiarekin. Ikusten duzu tristura, nekea”, azaldu du Amaiak, “eta ezin diozu itxaropenik eman, zu ez zare-lako hor egongo beti”.

Nati ere birritan egon da Grezian: lehenengoan boluntario moduan Idomenin eta bigarreanean plataformak antolaturiko karabanen. Lana oso ezberdina dela dio, ez da boluntariotza egitera joatea bezala. Karabanarekin helburua egoera salatzea zen, “beraiek ezin badira etorri gu joango gara bila” lemapean. Argi dago ez zutela inor ekarri, baina elkartasuna adieraztea han geldi zegoen eta oraindik dagoen jendearekin nahikoa izan zen.

Tesalonikako No Border Camp kanpamentura iritsi eta inguruan lanean ibili ziren. Besteak beste, pare bat manifestazio egin zituzten, oso garrantzitsuak izan zirenak, plataformako kidearen hitzetan. “Nahiz eta gu 300 izan, eta 300 ez izan asko, manifestazio baterako badauka bere pisua, 6.000 kilometro egin genituelako manifestazio horretan parte hartzeko”.

Askotan pentsatzen da errefuxiatuak laguntzea janaria eramatea edo mantak oparitzea dela. Baina bertan dagoen jendeak ez du hori bakarrik nahi. Ovelleirok ondo gogoratzen du Idomenin egondako errefuxiatu batek behin esan ziona: “Lagundu nahi bagaituzue benetan, zabaldu eta salatu hau, gertatzen ari dena. Guk ez ditugu zuen soberakinak nahi, guk gure



herrira itzuli nahi dugu, gerrarik gabe”.

Banderarena, adibidez, oso ekintza erraza dela dio Natik; edonork dauka bost euro bandera bat erosteko eta leihoan jartzeko. Agian pentsatu daiteke hori ez dela ezer, baina horrek nolabait esaten du “hemen gaude eta ez gaude ados”. Beharrezkoa da laguntza humanitarioa, bai, baina hori ez da bide bakarra, ezin da bakarra izan. “Jarri ditzakegu tiritak, baina ez badugu konpontzen sustraian gertatzen dena arazoak hor jarraituko du. Ez bada salatzen eta ez bazaie gobernuei hau konpontzeko eskatzen, ez da konponduko”.

Komunikabideek, hedabidearen arabera, askotan ematen duten irudia da errefuxiatuek Europan sartu nahi dutela, eta Greziaren inguruan sarri hitz egiten dute. Horren harira, telebistan informazio hutsune handia dagoela dio Mintegik. Zorritzarrez, migrazioen drama ikusteko ez dugu horren urrun joan behar, Elorrioren orain dela gutxi gertatutakoa –bi familia kurdu agertu ziren kamioi batean– edota gure herrietan dagoen paperik gabeko jendea dira horren adibidez. “Ematen du Grezian dagoela arazo bakarra, baina estatuko hegoaldeko muga hurbilago dago eta erabat ahaztuta daukagu”, salatu du Ovelleirok. Eta, izan ere, hara joango dira hurrengo udako karabanen, Melillara.

Gernikako Topaketetarako gonbidapena

Gernikako bonbardaketaren 80. urterena aprobetxatuz, 1937an Gernikan eta oro har Euskal Herrian bizi izandako egoera egun bizi duten herrialdeei ahotsa

jarri nahi diete eta egoera hori bera salatu. Horretarako, *Ongi Etorri Gernika 2017* nazioarteko topaketak antolatuta dituzte plataformako lagunek apirilaren 28tik 30era, “gerrarik ez” mezua aldarrikatzeko eta babesa agertzeko migratzaile zein errefuxiatuei.

Bost Auzoko kideak, bat egin nahi duten pertsona guztiekin batera, Deustutik abiatuta Gernikarako bidean jarriko dira oinez, apirilaren 28an, arratsaldean. Bilboko beste taldeekin bilduko dira eta Artxandatik Larrabetzurako ibilaldia egingo dute, hurrengo goizean jarraitzeko, Larrabetzuti hasita helmugaraino, Gernikaraino.

Bertan, apirilaren 29ko arratsaldean, hasiko dira ekintzak, “gerrarik ez” leloa oinarritzat hartuta errefuxiatuen aldeko martxak eginez. Hori izango da topaketen lehenengo zatia. Bigarren zatia, apirilaren 30ean aurrera emango dena, tailerren eta foroaren bidez garatuko da. Bertan jorraituko diren gaiak, besteak beste, errefuxiatuen eta migratzaileen zergatia, kapitalismoaren eragina errefuxiatuengan edota arazo ekologikoen eta gerraren ondorioak izango dira. Emakume eta errefuxiatuen inguruko foroa ere antolatu dute, eta bestelako esperientziak ezagutzeko foroak: harrera esperientziak, desobediencia esperientziak eta gure hegoaldeko mugarekin lotuta dauden esperientziak kontartzeko tartea. Bigarren zati honetan badago apuntatzerik Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformaren web orriaren bitartez.

bizkaia.ongietorrierrefuxiatuak.info/eu

“Tiritak jar ditzakegu, baina ez badugu sustraian gertatzen dena konpontzen arazoak hor jarraituko du”



www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT presentatazioa de **ETIF**





IKASTOLAKO INAUTERI ERREBELDEAK

2. ZIKLOAN

2017ko otsailaren 17an, Deustuko Ikastola erabat eraldatu zen. Erleak, Abba taldeko kideak, indigenak, pijamaz etorriak... Denetarik ikusi genuen, ohiko ikasle eta irakasleak izan ezik.

Egia esan, irakasleek, egun batzuk lehenago, sinesmen txikia adierazi zuten DBH 3. eta 4. mailakoonganako, ezinezko ikusten zuten bigarren ziklokoko ikasle guztiok mozorrotuta etortzea eta gainera ondo pasatzea. Bada, oraingoan ere ez dute asmatu. Kosta egin zaigu, baina lortu dugu! Ezetz eta ezetz esaten ziguten, eta guk baietz eta baietz. Gu gai ginela edozein aitzakiarekin, gure kabuz jai bat antolatze-ko eta ondo pasatzeko.

Azkenean amore eman zuten, eta ikasle talde bat prest agertu ginen egitaraua prestatzeko. Euskal Herriko festetan ohi den bezala, kalejira alaitsu batekin eman genion hasiera festari. Jarraian, mozorro desfilea egin genuen eta gehien-gehien-tsuenok hartu genuen parte. Ondoren, bertso-saioa egin zen. Ikastolako ikasle ohiak, gaur egun bertsolari direnak gonbi-

datu genituen eta izugarrizko saioa eskaini ziguten. Aupa Mikel, Enare eta Ander!!!

Irakasleak ere animatu ziren, aitortu behar dugu. Kantuan eta dantzan ikusi genituen gure artean, haietarikoren bat animatuegi ibili zela ere esan genezake, gure harridurarako. Azkenik, egunari itxiera emateko, diskofesta egin genuen. Ikastolako gimnasioan musika topera jarri eta dantzan egin genuen, gorputzak ederto astindu eta barre piloa egin genuen, bai irakasle bai ikasleok ere.

Hemendik eskatu irakasleei, konfiantza gehiago izan dezatela gudan, ikasleengan. Askotan, ez beti, ideia onak izaten ditugu eta emandako hitza betetzen dugu.

Espero dezagun datozen urteetan, ondorengoek errazago izatea.



Testua

Maite Sarasola

Argazkiak

Deustuko ikastola



ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





ETXEZURIKO FUTBOL ZELAI ZAHARRAK EHUN URTE

*1917ko urtarrilak 28 zituen
Deustuko lehenengo futbol zelaia
ireki zutenean. Etxezuri baserriko
solo batean atondu zuten eta itxura
bikaina zeukan. Athletic eta SD
Deusto zelairatu ziren arratsaldeko
hiru eta erdietan. Herri osoa
zeukaten begira.*

Testua: Hektor Ortega

Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma

Etxezuriko futbol zelaia ehun urte bete berri ditu. Hobeto esanda, beteko litzuzke oraindik izango balitz, zeren gaur egun Etxezuri esaten zaion zelaia, jakina denez, orain dela urte gutxi atondu zuten.

Zelai zaharra izena ematen zion Etxezuri baserriaren ondoan zegoen, bidez bestalde. Gaur egun kanalaren erdian legoke, gutxi gorabehera, Arte Ederretako fakultatearen aurrean.

Bada hura izan zen Deustuko lehenengo futbol zelaia. Artean, futbol partiduak landetan jokatzen ziren. Herrian erabiliena Botikazarreko landa izan zen. Bertan jokatu zuten Deustuko talde gehienek XX. mendeko lehenengo hamarkadatik. Baina 1914tik aurrera herriko futbolaren egiturak sendotu ziren, lehenengo Unión Fortuna izenpean eta 1915etik aurrera SD Deustoren babespean. Klubak indarra hartu zuen baita Bizkaiko bigarren mailako txapelketa irabazi ere, 1916an. Entrenamenduak Botikazarrean egiten zituen baina par-

tidu ofizialak Errekalde zumardiko zelaian jokatu zituen, alegia, Club Deportivoren futbol zelaian. Hura Bilboko lehenengo zelaia izan zen. 1913ko martxoan zabaldu zuen Deportivo, Atheticek San Mames baino bost hilabete lehenago.

Beraz, futbola gorantz zetorren Deustuan eta klubak Etxezuri baserriko solo bat hartu zuen zelai gisa atontzeko. 101 metro luze eta 60 metro zabal egin zuten, ederto leundurik baina, kronika baten irakurri dugunez, zabaldu zuten egunean oraindik belarra gutxi hazita zegoen. Bidearen eta zelaiaren arteko lubanak harmailarena egiten zuen. Aldagelak baserriko beheko solairuan egokitu zituen klubak. Hala etxeko alderdi hori nola arloa alokairuan hartu zion Etxezuriko ugazabari. 1920ko hamarkadan bien trukean SD Deustok 1.360 pezeta ordaintzen zuen urtean.

Lehenengo partidua

Esan legez, urtarrilaren 28an jokatu zen lehenengo partidua Etxezurin. Egundoko ekitaldia izan zen. Bezperan Deustuko udal txistulariek kalejira egin zuten herria girotzeko. Partidua domeka arratsaldean jokatu zuten, zelaia mukuru beteta eta Deustuko musika banda bertan zegoela. Hiru eta erdietan Benito Santamarina herriko alkateak ohorezko satea egin zuen, alboan klubeko lehendakari Jesus Muñoz Mendizabal zeukala.

Aurrez aurre ekipo bikain bi aritu ziren, nor baino nor gehiago. Alde batetik, Athletic, lehenengo ekipoko eta erreserba taldeko jokalariek: Amezaga atean, Astorkia eta Allende atzean, Bourgeaud, Astorkia eta Cabieces erdialdean eta German, Sarasua, Salaberri, Laka eta Acedo aurrean. SD Deustoren aldetik, Urdangarin atezain, Luis Kortadi eta Martinez atzealdean, Egiluz, Duñabeitia eta Etxebarrieta zelai erdian eta Zelaia, Deprit, Zubizarreta, Viar eta Carmelo aurrealdean. Carmelo hura, zer esanik ez, geroago Athleticen jokatu zuen Carmelo Goienetxea zen. Egun hartan arerio izan zituen batzuk bere

ETXE-ZURI. DEUSTO-ARENAS 15 ENERO 1922



Etxezuriko futbol zelaia, 1922. SD Deusto-Arenas. Atzean ikusleak lubanean eta Etxezuri baserria.

ondoan zeuden 1923ko Kopa irabazi zuen lehoien hamaikakoan, Acedo eta German Etxebarria, *Maneras*, kasu.

Deustuko partidu hura irabazi, Athleticen irabazi zuen, 4-2, baina lehenengo gola deustuarrek egin zuten. Zoritxarrez, ez dugu egilearen izena inon aurkitu. SD Deustok partidu ona egin zuen. Jose Maria Mateos kazetariak bere kronikan nabarmendu zuen deustuarren

kalitatea eta argi idatzi zuen laster ikusi beharko zituztela lehenengo mailan: "Ez nintzateke harrituko lehenengo mailan ikusten baditut, ezta ez dakit ez ote nintzen beldurtuko". Begi ona zeukan. 1918-1919 denboraldian SD Deusto Athleticen mailara heldu zen, Erregional Txapelketako lehenengo mailara alegia, garai hartako gorenera. Denbora gutxian, zelai berriaren bultzadaz eta belaunaldi bikain bat baliatuz deustuarrak erpinera iritsi ziren.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



artikulua
jaiak

JAIK, INOIZKO ESKAINTZARIK HANDIENAREKIN

Egitaraua birmoldatzeko ahaleginak fruituak eman ditu eta 70 ekitaldi baino gehiago antolatu ditu Deustuko Jai Batzordeak aurtengo jaietarako.

25 urte bete berri dituen Berbaizu euskara elkarteak eman die hasiera aurtengo festei, jai parte-hartzaileen aldeko pregoiarekin. Eta jaietsiera ixten, azken postuan egin dute txosnagunerainoko bidea, beste 30 konpartsa eta kuadrillarekin batera. Luntx herrikoian indarrak hartu ostean, Siroka eta Ziribullo taldeek girotu dute lehen gaua.

Ohiturak agindu legez, arrosa sukaldatzen hasi dute larunbata deustuarrek, Done Petri plazan. Eguraldia lagun izan dute bigarren egun honetan eta txosnako musikak girotu du Arroz Ahotsaz txapelketa. Azkenean, Txoliñek taldeak eskuratu du sari nagusia, epaimahaiak aurkezturiko 30 proposamen gastronomikoak dastatu ondoren. Eta olinpiadei eman diete hasiera. Jokoa eta nola ez, barrea izan dira nagusi, eta azkenean Txupipandi kuadrillaren estrategiak gorenera eraman ditu gazte hauek.

Bitartean, plazaren bestaldean, hainbat ikusle bildu ditu Mikeldi Dantza Taldearen ikuskizunak. Eta beste hainbat kantari elkartu ere, abesbatzen topaketak.

Arratsaldean, ume deustuarren irribarreen bila aritu dira Irrien Lagunak, parkean. Eta danbor-hotsen maitaleentzat, batukadaren erritmoak dantzan jarri ditu Deustuko kaleak, gaitek lekukoa hartu dioten

arte, Done Petrin ospatu den erromerian. Gazta, txorizoa eta sagardoa ere izan dituzte dastatzeko bertara hurbildu direnek.

Gauean, Izerdi Gorria musika taldea izan da eszenatokiaren jaun eta jabe, Bizkaia osotik etorritako ehunka ikusleren aurrean.



Martxoaren 19a du Deustuak egun handia eta udal korporazioarekin ospatu dute. Emakumeen Aurrekua amaituta, bildots jan herrikoia izan dute lehen aldiz deustuarrek. Pilota Txapelketako finala ere iganderako utzi dute. Harmailak jendez lepo, musika eta olatuak. Azkenean, Javier Monteagudo eta Aitzol Zarraga deustuarrentzat izan da garaipena. Lehen aldiz gainera, emakumeek ere egin dute salto lharra frontoira. Larrabetzuko Txokoan taldeko neskak izan dira partidako protagonistak. Eta eurekin amaitu da lehen asteburuko egitaraua.

Ez, ordea, jaiak. Ostegunetik igandera bitartean, hainbat ekimenez gozatzeko aukera izango da Deustuan. Ostegunean bi bertso-saio izango dira txosnaguneari eta larunbatean musika estilo guztiek Done Petrin izango dute elkargunea, Zona Especial Norte jaialdiaren bosgarren edizioan. Igandean, lehen aldiz Aldats erromeriak girotuko du tomatearen erreketak eta deustuarrek jaiak agurtu dituzte, datorren urtera arte.

Testua
Jaione Ayestaran
Argazkiak
Jaione Ayestaran
Berbaizu elkarteak
Jai Batzordea



HAUXE BAI JENEROAI!



@garbineubeda

berbetan

NEREA CUBILLO URKIZU ETA JON INTXAURRAGA GRIJELMOREKIN

Berbaizu euskara elkarteko kideak

“Garai zailagoetan ere euskara elkar teak

Nerea Cubillo Urkizu (Deustua, 1997) eta Jon Intxaurreaga Grijelmo (Bilbo, 1989) Berbaizuko kideak dira. Nerea Txantxiku aisialdi taldeko kidea da eta Jon elkarteko koordinatzailea.



Testua: PREST! aldizkaria

Argazkiak: Iñigo Azkona



euskaldunon elkargune eta arnagune izan dira”

Aurten Deustuari Euskara Dariola-Berbaizuk 25 urte betetzen ditu, eta apirilaren 1ean *25 urte eta haZSten* eguna ospatuko dute Deustuan. Egun osoko egutegia presatzen ari dira, non, besteak beste, argazki erraldoia eta herri-bazkaria antolatuko dituzten. Horretaz gain, bazkidetza kanpainari abiatu dute eta jaietako pregoia esan ere bai. Horra heldu aurretik, 25 urteetako ibilbidea dago.

Mende laurdena, ez da gutxi euskara elkartzet batentzat.

Jon: Berbaizu berez 2000. urtean sortu zen, baina 25 urte pasa dira Deustuari Euskara Dariola sortu zenetik, gure aurrerari dena, eta biak ospatzen ari gara aldi berean, gure ustez bata bestearen segida delako.

Noiz sortu zen Deustuari Euskara Dariola, bada?

Nerea: 1990ean hainbat esparru eta mugimendutatik (Gazte Mugimendua, Eliza ingurukoa, EHE eta abar...) zetorren jende-multzo batek sortu zuen. Hamar urte egon ziren, Berbaizuk lekukoa hartu arte. Lantaldeka aritzen ziren (Kulturgintza, Salaketa...) eta aipagarriak dira, adibidez, *Eta hau zergatik ez euskaraz?* salaketa kanpaina, kirol ikastaro andana, lehen liberazioak edota *Hitza Hartu* aldizkaria haren inguruan sortu izana, *Prest!*-en aurrerari dena. Nabarmena da ere Deustu Ikastolako DBH3 eta DBH4ko belaunaldi bat euskalgintzari lotu zitzaioela. Hasibe-

rriak zirela kontuan hartu behar dugu.

Jon: Bai, kuriosoa da Dariolak bultzatu zituen proiektu asko errepikatu direla denboran zehar, Kulturgintza edo Auzogintza adibidez. Egiturari dagokionez, gaur ere (lan)taldeka funtzionatzen dugu eta, zelan ez, sentsibilizatorako materiala eta salaketa kanpainak egiten jarraitzen dugu. Esan dezakegu Dariolak euskara elkarte baten oinarri finkoak jarri zituela Deustualdean, estetika eta mezu berri batzuekin, aurrerantzean Berbaizuk aprobetxatu eta eguneratu dituenak. Izan ere, Dariolako 40 lagunek ia ikasturteko gogoeta egin ostean Berbaizu izango zena sortzeko ibilbide-orria finkatu zuten, betiere euskara ardatz izanik. Bada, garai zailagoetan ere, Dariola eta Berbaizu euskaldunon elkargune eta arnagune izan dira, *Euskarak elkartzet gaitu* lelo hura egia bihurtuz.

Eta ondo aprobetxatu ere.

Nerea: Lehenik eta behin, Ramon y Cajaleko lokala erosteko. Auzolan bati esker egin genuen, eta horri esker deustuar guztiek gaur badakite Berbaizu non dagoen, eta euskarak badauka erreferentzia deustuar bat. Era berean, gaur antolatzen ditugun zikloak (Bidaia Kontaketa, Gazte jardunaldiak...) eta txokoak (Kantagintza, Gometxa, Berbalagunak, Irakurleen Txokoa) ere erreferentzia bihurtu dira, ez bakarrik Deustuan; baita Bilbon ere. Adibidez, erreferentziazko hamarna idazle pasa dira Irakurleen Txokotik eta apirila-

“Euskarak elkartzet gaitu lelo hura egia bihurtu dute Dariolak eta Berbaizuk”

▷ ▷ SAKONEAN

“Urte askotako lanaren aitorpena da pregoilari izendatzea”

Berbaizuren 25 urteak direla-eta, Jai Batzordeak pregoilari izendatu zaituzte jaietan.

Nerea: Jai Batzordearen proposamena izan zen, eta oso pozik gaude. Ardura handia da baina, Jai Batzordeko kideak izanda, harrotzekoa ere bai. Urte asko daroagu bertan lanean, eta benetan eskertzen da gurekin akordatu izana. Gure jaiak dira eta pregoia opari ederra da gure urteurrena ospatzeko, batez ere urte askotako lanaren aitorpena delako.

Jon: Nik flipatu nuen. Guraso eta lagunei kontatu nienean ez zuten sinetsi. Egia da batzuek uste zutela Bilboko pregoia esango genuela, baina okerra zuzendu nienean ere, kostatu zitzaizen sinestea. Niri ere kostatzen zait irudikatzea hor egon garela, baina hor egon gara eta pregoi ederra esan dugu, noski!



ren 5ean Kirmen Uriberen bisita izango dugu berriro ere.

Nerea: Literaturarekin lotuta, mikroipuin lehiaketa ere erreferentziazkoa da. Deustualdeko ikastetxeekin Euskararen Unibertsorearen barruan antolatzen dugun lehiaketetako bat, non ehunka ikasleek parte hartzen duten, eta euren mikroipuinak bilduta liburuxka ateratzen dugu.

Jon: Ez genuke aipatu barik utzi nahi egun Deustualdeko 40 saltokik daukatela “Hemen berbaizu hemen euskaraz” dioen pegata eskegita; Iparraldera egin ditugun bidaiak, Deustualdeko hainbat eragilerekin ditugun hitzarmenak eta elkarlanak (Ecuador Etxea), egindako mintegiak edota Berbaizuk ahalbidetu dituen Txantxiku, Elorri Bertso-Eskola edota aldizkari hau.

Aurrera begira zer proiektu duzue esku artean?

Nerea: Gure ohiko jardueri eusteaz gain, jaio berri den OZEN gazte taldea, Bilboko Udalarekin daukagun *Deustualdeko ikastetxeak arnasmune bihurtuz* proiektua; ikasleek euskara gehiago eta gehiagotan erabiltzea helburu duena, Mullerenea duindu eta proiektua egonkortu, *Uriola*

agerkari digitalaren bazkietza kanpaina, formazioa, aktibazioa eta kontzientziazioa ere landu nahi dugu eta Aguraingo, Egiako edota Hernaniko esperientzien ildotik 72 ordu euskaraz ekimena aurrera eroatea dira buruan ditugun proiektuak.

Apirilaren 1ean zuen urteurrena ospatzeko asmoa duzue. Zer antolatuko duzue?

Nerea: Egun osoko egitaraua prestatzen ari gara, adin guztiak kontuan hartuko dituen. Eguerdian bazkideen batzar arin bat egingo dugu Bidarten non Janire Soldevillak eginiko dokumentala aurkeztuko dugu. Horren ostean, 12:45ean inguru, Berbaizu eta Dariola (izan) garenok bildu eta, orain dela bost urte bezala, argazki erraldoia egingo dugu Bidarte aurrean. Segidan Done Petrira hurreratu eta kami-setak egiteko tailerrarekin batera; zeina Aitor Urkijok emango duen, umeentzako jolasak antolatuko ditugu txantxikukook 14:30ak arte, orduan bazkaria hasiko da eta bazkalostea bertsoz eta kantaz girotuko dute Elorriko bertsolariak eta Kantagintzako taldekideak. Arrastian bi kontzertu antolatuko ditugu: 18:30ean Laize MC eta El Apendiz Mullerenean eta 19:30ean Crossover Izeki taberna parean. Bukatzeko, 21:00etan Gazte Lokalera joango gara parrandan, Txoriak Negutegian taldeak eta DJ Txoteok girotua. Kristoren egun polita izango da!

Jon: Gure helburua da apirilaren 1ean Berbaizu eta Dariola (izan) garen guztiok biltzea (bazkideak, berbalagunak, txokokoak, Txantxikuak eta Txantxi-gurasoak, langileak eta langile ohiak, *Prest!*-eko erre-

dakziokoak, lantaldeetan ibilitakoak...), elkar ezagutzea, esperientziak trukatzeta eta gure ibilbidea ospatzea. Jende pilo bat gara eta ondo legoke batzea eta elkarrekin ospatzea.

Jende asko zaretela diozue baina zuen oinarria zabaldu nahian zabilzate bazkietza kanpainarekin.

Nerea: 25 urte bete ditugula aprobetxatu nahi dugu berbaizukide berriak izateko, 'haZSten' jarraitzeko, eta bazkietza kanpaina abiatu dugu. Gure helburua da bazkide bakoitzak bazkide berri bat egitea, inguruan jende asko dagoelako bazkide ez dena. Gauzak ondo badoaz, 500 bazkideen langa gaindituko dugu (barreak).

Jon: Egun 280 bazkide gara. Eurak dira gure babesleak, eurak barik ez zen Berbaizu egongo eta hori azpimarratzekoa da, izan ere, diru-laguntzak eta txosnan ateratako dirua gorabehera, bazkideak beti daude hor, gure oinarri dira, eta kanpainari esker sendotu nahi dugu oinarria, Berbaizuren proiektuak aurrera jarrai dezan, Deustualdea euskalduntzen jarrai dezagun.

Nerea: Gainera, Berbaizu gaztetzeko eta feminizatzeke aprobetxatu nahi dugu. Egia da gure lantaldeetan gazte eta neska-emakume pilo bat daudela, baina zuzendaritza batzordean, adibidez, hori ez da islatzen. Gure kalterako da, gainera, gizar-tearen zati bi kanpoan geratzen direlako eta erreleboa ez delako bermatzen.

berbaizu.eus

“Bazkideak beti daude hor, gure oinarri dira, eta kanpainari esker sendotu nahi dugu oinarria”



KORRIKA

20. Korrika amaiera Iruñean

Apirilaren 6an, ostegunean, Bilbotik pasako da 20. Korrika eta Iruñean bukatuko da apirilaren 9an, igandean. Ozen gazte euskara taldeak apirilaren 9an 20. Korrika bukarara joateko Deustutik Iruñerako autobusa atera du. Egunean bertan joan-etorria egingo du autobusak, eta horrela deustuarrek aukera eroso eta erraza izango dute Iruñean Korrikaren azken kilometroetan parte hartzeko. Tikitak Berbaizu euskara elkartearen bulegoan egongo dira salgai agortu arte (plaza mugatuak dira, beraz, arin ibili). Helduek 12na euro ordaindu beharko dute eta ume eta gazteek 11na euro. Deustualdean ere, euskararen alde!

Sarrikoko Hegoak Talde Feminista sortu berria

Martxoaren hasieran aurkeztu zuten Sarrikon Hegoak talde feminista eta martxoaren 8rako egitarau ederra antolatu zuten. Egun seinalatua aprobetxatuz emakumeek jasaten duten zapakuntzaren aurka aldarrikapena egiteaz gain, espazio feminista baten beharrari buruzko hausnarketa egin eta emakumeen arteko harremanak estutzea izan zuten helburu taldeki-deek. "Hain ezkutatuta eta tabuez betata dagoen" hilerokoaren inguruko *La luna en tí* dokumentala ere proiektatu zuten eta musika feministaren bila *playlist*-a osatu zuten. Hainbat kidek aurpegia morez margoztuta parte hartu zuten martxoaren 8ko elkarretaratzean, Sarrikoko fakultateko atarian *Feminismoa zorroztu* lelopean.

IRAKURLEEN TXOKOA

Kirmen Uribe Irakurleen Txokoan

Elkarrekin esnatzeko ordua (2016, Susa) Kirmen Uribek idatzitako azken lana da. Egiatzko pertsonaiek eta gertakariak osatzen dute Uriberen eleberria, Karmele Urresti eta Txomin Letamendiren bizipenak oinarri daukana. Euskal Herriko historiaren hainbat gai jorratzen ditu Uribek (Gerra Zibilaren porrota, erbestea edota klandestinitatea...) liburu honetan eta Euskararen Etxean beragaz berba egiteko aukera izango dute Deustuko literaturazaleek apirilaren 5ean, asteazkenean, 20:00etan.



berbaizu
euskarareikarte

KIRMEN URIBE
**ELKARREKIN
ESNATZEKO
ORDUA**

Susa

**APIRILAK 5, asteazkena
20.00etan Euskararen Etxean**

Kirmen Uribe eleberraren egilea etorriko da. Erdu zu ere bai!




HERRIKO TABERNA

Ospakizun gehiago

Jaiekin batera aurkeztu dute Deustuko Herriko Tabernaren 30. urteurreneko abestiaren bideoklipa. Ieltxu Gimenez, Ibon Urrutia, Ane Martinez, Mikel Alvarez, Asier Cobos, Markel Baroja eta Mikel del Barrio musikarien eta Markel eta Jose kamerariaren lana izan da. Urteurren borobila izanik, ospakizun handia prestatzen ari dira Herriko lagunak maia-tzaren 2tik 6ra. Egunero izango da jardueraren bat: mahai ingurua, hitzaldia, umeentzako ekintzak, tailerrak, kontzertu akustikoa... Herriar asko elkartu nahi dituzte, besteak beste, maiatzaren 6ko bazkarian.





Urtea: 1953

Txema Luzuriaga

Erritmo onean hasieran

Kanalaren hondeaketa-lanak ikus daitezke argazki honetan, hain zuzen ere, Euskalduna auzoko etxeak hauts bihurtu aurretik. Atzematen denez, hasiera hartan lan erritmo onean ari zirela

zirudien, baina gerora zerbait gertatu zen Kanaleko obrak atzeratzeko.

Bilboko Portu Agintaritzak utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~
TABERNA**
BETI ZIZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
Itzalsuen atzean
Ramon & Kaja 26
DEUSTU

**ATXURI
TABERNA**

Luzarra 1
Deustu

946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Optica
Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

www.bilbohiria.com

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria Irratia

berriak * musika
elkarriketak

BREST

kafetegia

Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

KABLA
AUTUMN
elkargunea

INTERNETA, MUSIKA,
ESKUPILOTA ESKOLA, WI-FI,
KULTUR ERINTZAN,
TREPETA ASTIALDI TALDER....
ETA OSTIRALEKO HANBUZGARRAK
SANTITASUN ETA POKER PARTIDAK
eta nira eskaldunak!

1924tik Deustun

**Tintoreria
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua

**Probatu
herrizki.eus**

ANDROID APP
Google play

Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net

Matxintxu
aek ■ euskaltegia

Matrikula zaitzez! **aek**

Iragar zaitetz

Prest!
-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**RONDOKO
HORTZ KLINIKA**

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Bitxidenda

Sabin
Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS**

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

Oktoberfest

Etxeko berezitasunak:
txerri-ukondoa eta saltxitxak

Urtebetetze askariak
ematen ditugu

Santxo Azepeitia, 3 - 94 447 22 83

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Zer deritzozu Deustuko Sare dinamikaren #SinatzenDut kanpainari?



**Josu
Ibarrekolanda**

Ondo deritzot. Presoen dispertsioaren harira, orain dela gutxi Auzitegi Konstituzionaleko hiru epailek adostasuna adierazi diote presoak euren etxetik hurbil dauden espetxeetara leku aldatzeari.



**Diego
San Inazio**

Presoen dispertsioa amaitzeko egiten den kanpaina oro ondo dago. Izen-abizenekin kanpaina babestea beste pauso bat ematea da.



**Ane
Erribera**

Primeran deritzot. Sinatu dut, eta sinadura bilketan ere ari naiz. Ahalik eta urrats gehien eman behar ditugu presoak gure artean izateko.



**Jon
Erribera**

Beharrezko kanpaina da espetxe politika kriminal honen zati bat bukatzeko.



**Irene
Deustu**

Dispertsioak sufrimendua besterik ez du eragiten presoengan eta euren sendeengan; mendekurako erabateko tresna da.



**Nerea
Deustu**

Pertsona guztiek dute familiaren ondoan egoteko eskubidea euren ongizatea bermatu ahal izateko.

harkua bete berba



>> IBILBIDEAK

EMAKUMEAK PROTAGONISTA DITUEN PASEOA

Erriberan zehar ibilbide gidatuak antolatu ditu Bilboko Udalak emakumeek egindako ekarpenari erreparatzeko.

Testua eta argazkiak: Nerea Olaziregi

Argazki kamera eta grabagailua eskuetan dugula, Artiach lantegian dugun hitzordura abiatu gara. Udalak antolatzen duen ibilbidea, Emakumeak Zorrotzaurren eta Olabeagan: iragana, oraina eta etorkizuna, puntu puntuan hasi da, eta gu heldu orduko mikrofonoa daraman neska gaileta lantegiari buruzko azalpenak ematen ari da. 13 pertsona gaude bere inguruan, emakumeak gehienak. Gure gidak Miren du izena. Koadernoan apunteak hartzen dituenari erreparatu diot eta elkartzunagatik edo, grabagailua itzali eta boligrafoa ateratu dut nik ere.

Gaileta lantegiko plantilla deskribatzen ari da. 800 langile zituzten, %75 emakumeak. Beraiek produkzioaz arduratzen ziren bitartean, gizonezkoak bulegoetan eta garraioan aritzen ziren gehienbat. Emaku-

meen bikoitza kobratzen zuten. "Orain bezala", dio nire ondoan dagoen neskek. Gailetagileek, lan baldintza kazkarrak zirela eta, greba egitea erabaki zuten. Lehenengo aldiz 1917an, enpresa Urazurrutian zegoela. Orduan soldata igoera eta lan baldintza duinak aldarrikatu bazituzten ere, greba egitera bultzatutako arrazoia beste bat izan zen: langile batek emakume bati eraso egin zion.

Taldeko emakume batzuk orduko pasarte batzuk gogora ekarri dituzte. Gailetagilerik dagoen galdetu dut badaezpadan, ez dago, baina ezagutu zituzten. Andra batek apurtutako gaileten poltsak erostera etortzen zela kontatu du, askoz ere prezio merkeagoan.

Duquesa Maria lantegirantz abiatuko garela esan digu Mirenek eta bidean apunteak hartzen zituen neskari

galdetu diot ea komunikabideren batetik zetorren. "Ez, niretzako hartzen ditut, bestela izenak eta datak ahaztu egiten ditut", erantzun dit. Lau neska gazte batu zaizkigu taldera, berari ere koadernoak eta argazki kamerarekin. Lana Udalean aurkeztu nahi dute ondare kulturalaren inguruko lehiaketa batean.

Yolanda Gonzalezen plaza-txoan beste eten bat egin dugu. Bilbon 900 kale inguru dagoela aipatu du, eta kutsu erlijiosoa dituztenenak kenduta, hogeitaka batzuk baino ez dira emakumeenak. Yolandaren izena auzokideen lana eta ekimenari esker lortu zela azpimarratu du gure gidak. "Manifestazio batean hiltzen zuten" esan du emakume batek. "Ez, -zuzendu dio hizlariak- Madrilen ikasten ari zela, bahitu egin zuten gero hiltzeko". Ez du xehetasun gehiegirik eman

eta Olabeagara begira jarri gaitu. Itsasadarraren beste aldean, aurrez aurre dugun paseoa Zirgarien kaia izendatu berri dute, eta emakume horiek egiten zuten lan gogorraz mintzatu da.

Aurrera goaz Coromina Industrial lantegiraino. Bidean jendeak berriztatuko etxebizitzetara buruz hitz egiten du eta, nola ez, Plan Berria aurkeztu zutenetik askotan erreplikatzeko den esaldia entzuten dut: "Zein polita geratuko den auzoa, urte batzuk barru hemen bizitzeko luxu bat izango da".

Manuel Maria Smithek diseinatutako Coromina lantegiaren aurrean gaudela -azken urteetan Vicinay Cadenas enpresaren bulegoa izan da-, eraikinarren eta auzoaren orainaz eta etorkizunaz ari zaigu Miren. Udalak erosi omen duela eta auskalo, zer egingo duen berarekin. Gaur egun auzoan da-



goen bizitza eta auzokideen lana azpimarratu du, baina nire harridurarako ez du Ur Artea aisi aldi taldeaz, auzo elkarteaz, Bekoerriz edota Jai Batzordeaz hitz egin. Zawp, P6, Zirkozaurre eta "kulturaren bitartez, auzoa bizirik mantendu nahi du-ten" ekimenez ari da. Ikus-tezin bihurtu gara.

Nire etxe aurrean geratu gara. Gure gidak Albako dukesarena zela esango

zuela pentsatu dut, baina ez, Olabeagara begira jarri gaitu berriro. Zamatzeko tokiak, bakailaoa, marinelak, portu giroa, eta Noruega aipatu dizkigu. Eta handik Frank Gehry zubira. Planoak atera ditu kanalaren eta itsasadarraren artean ondo kokatzeko. Erribera eta Zorrotzaurre ezberdintzen ditu, eta Zorrotza industrialeraino eramán gaitu Mirenek bere azalpenekin.

Hurbila da eta etengabe erortzen zaizkion galderasortak pazientzia handiz erantzuten ditu. Egunero egoten da ibilbidea gidatzen asteartetik larunbatera. Harrera ona izaten ari dela dio, orokorrean 30 bat lagun batzen ditu egunero. Euskarazkoetan gutxiago, hamar-hamabost artean. Gehienak Bilbo ingurukoak dira, emakumeak eta antzeko ekimenetan parte hartzera ohituta daudenak.

Euskalduna zubiaren ondoan agurtu dugu taldea. San Mames aurrean dugula aprobetxatuz, Athleticeko nesken eta mutilen arteko aldeaz eta orokorrean emakumeek kirol munduan ere jasotzen dituzten zapa-ilkuntzez hitz eginez. Merez du ordu eta erdiko paseoak. Apirilaren 29ra arte aukera dago oraindik gure inguruko emakumeek garapen ekonomiko eta sozialari egindako ekarpena ezagutzeko.

NEUMÁTICOS MITXEL



JADA MARTXAN!!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]



Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com



‘INUNDACION’, ZIENTZIA FIKZIO FEMINISTA

La Fundición aretoak hartu du ‘Inundación’ antzezlanaren estrenaldia. Magdalena De Santo dramaturgo argentinarraren antzerki pieza lesbofeminista da ‘Inundación’. Histeria kolektiboak Zinegoakekin batera ekoitzi du, La Fundición, Azala eta Plataforma Tiranterekin lankidetzaz baliatuta. Bilboko gaylesbotrans zine eta arte eszenikoen nazioarteko 14. jaialdian estreinatu dute.

Testua: Ane Zabala - Argazkiak: Histeria kolektiboa



Oholtzan, lurrean, hiruki bat agertu da, argiztatuta. Hirukia- ren barruan Nikita, Emilia eta Teo pertsonaia futuristak. Leire Ucha deustuarra, Estibaliz Villa eta Maite Fombellida aktoreek gorputzuak. Argentinan, La Platan 2013an egondako uholdeetan kokatuta dago istorioa. Hondamendi hura abiapuntu hartuta sortu zuen antzezlan Magdalena De Santosek. Egoera larri horretan Nikitak ume mutantea salbatu nahi du. Zientzia fikziozko antzezlan da, hil ala biziko egoera batean aurkitzen dira hiru pertsonaiak. Egoera horretan “gai asko ataretzen dituzte pertsonaiek: abortua, maitasun anitza, gizarte eredu...”, azaldu digu Leire Uchak. Pertsonaiak “lesbiana aktibista feministak” dira.

Inundación lanak gaiaren berrikuntza du bereizgarri nagusi, pospornoa, polimaitasuna, abor-

tua, biak lesbianen kontra, lesbianak transen kontra... Agenda lesbo feministaren beste item batzuk ere gainazalera ateratzen dira hondamen bidean dagoen bikote baten tentsioetan.

Eszenografiak estigmatizazio istorio batean kokatzen du eszena. Hiruki beltz baten gainean daude, naziek lesbiana eta putentzako ezarritako marka izan zen haren gainean, hain zuzen ere. “Aktoreentzat erronka handia da, hirukitik ezin gara atera eta obra osoan zehar eszenan gaude”, Leireren esanetan.

Antzerkia denez efektu bereziak, musika eta argiarekin datoz. “Zientzi fikzioa da, baina zineman ez bezala antzerkian bestelako efektuak erabili ditugu”. Zientzia fikzio feminista egitean datza, “distopikoa, salbatzaile heroikorik edo borrokalarri tipikoaren bertsio-

rik gabea, gizonezko pertsonaien antzekoak izaten baitira horiek emakumezko gorputzetan”.

Magda de Santos zuzendaria *Lesbianizar el teatro* manifestua- ren egilea da, eta hark gako asko eskaintzen dizkio ikusleari antzerkiaren inguruan duen ikuspegia ulertzeko.

Zientzia fikzio feministan oinarritutako antzerki pieza honen bitartez, beste indar modalitate batzuk ikusarazi nahi dira, ezaugarri maskulinoak dituzten pertsonaia feministen estereotipo eraikuntza sinplistik alde batera utzita. Gizonezko heroia emakume bertsio bilakatzetik urrun, pieza honen bitartez ‘emakume’ kategoriaren eremua zabalduko duten irudikapen alternatiboak bilatu nahi dira. Era berean, egungo agenda lesbofeministako gai nagusiak mahai gainean jarri nahi dira,




hala nola; postpornoa, polimaitasuna, abortua, amatasuna, klase eta arrazaren arteko interseksionaltasuna, eta aktibista lesbiana izateak piezaren lengoaian eragiten dituen kontraesanak. “Hizkuntza berezia erabiltzen dute

hiru pertsonaiek, eta testuarekin lan handia egin dugu”, dio Leirek.

Bi egunetan La Fundicion aretoa jendez lepo egon da *Inundación* antzezlaneko lehen emanaldietan, orain Euskal Herriko beste

txokotan erakusteko gogotsu daude. “Antzezlanaren mugitzea espero dugu, berez teatroa minoritarioa da, eta gaia ere, baina ia minoriak mugiarazten ditugun, eta han eta hemen eskaintzeko aukera daukagun”. Hori da Leireren asmoa.

LORCA, DALÍ, BUÑUEL. LOS ABORÍGENES





PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ITSAS KROKETA

Botikazarreko Erriberako 22. zenbakian dagoen Aroa-Botikazar gastrotaskara joan gara oraingo honetan. Egunero eskaintzen dituzten kroketa eta kafe gozoaren berri eman digute Erlantz eta Rebecak.

Zailtasun maila: ertaina

Kroketa pintxoa: 1,60€

6 kroketa: 6€

Berezitasuna: etxeko errezeta eta ikutua eta eskaintza zabala

Kontu batzuk

Bi berezitasun eskaintzen ditu Aroa-Botikazar gastrotaskak: kroketak eta kafea. Erlantz Urrutikoetxeak bere amamaren errezeta erabiltzen du kroketak egiteko. "Edozer gauza" kroketa bihurtuz. Kroketa karatuak dira, "desberdintzeko". Orain, besteak beste, kroketa gozoak eskaintzen ditu: txokolate beltz, banana eta intxaurrekin egindakoak. Barista profesionala denez, "kalitatezko kafea" ere eskaintzen du. Bere esanetan, Deustuko kafe "onenetako".

Aroa-Botikazarreko Erlantz eta Rebeca



ESPECIALIDAD EN TOSTAS Y CROQUETAS

AROA-BOTIKAZAR
Gastrotaska



RIBERA BOTICA VIEJA 22

DEUSTO - BILBAO

RESERVAS:

TLF. 946.855.259

AROA-BOTIKAZAR GASTROTASKA

Botikazar Erribera 22 - Deustu - 946 855 259

Astearte-asteazkenetan 09:00-21:00

Ostegunetan 09:00-16:00 / 19:00-22:30

Ostiral-larunbatetan 09:00-16:00 / 19:00-23:00

Igandetan 11:00-16:00 / Astelehenetan itxita



Zelan egin?

Txiki txiki ebakitako kipula “ondo” frijitzen hasten da Erlantz. Orduan eransten dio irina. Kroketen sekretua irinari gordin zaporea kentzean datza. Horregatik gomendatzen du Erlantzek irinarekin “lanketa handia” egitea, eragin eta eragin. Gainerako osagaiak apurka apurka gehitzen dizkio.

“Bertako produktuekin” egiten ditu Erlantzek Itsas Kroketak, “oso gureak” diren osagaiekin. “Itsasoa ondoan daukagu, eta ohore egin nahi nion”, dio sukaldariak.

Baietz gozo-gozo atera zuri ere. Beraz, praktika ezazu eta on egin!

OSAGIAK

*Mojojiak
Antxoak
Txaka (surimia)
Arrain-salda
Esnea
Irina
Kipula
Berakatza
Olioa
Gatza*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean

**DEUSTUKO BATZOKIA
1978 TIK**

C/ Holidore de la Torre. 5. 48014 DEUSTO
Tf: 94 405 06 58 BIZKAIA

Restaurante Deustoarrak



Tfnoa: 94 475 41 54
Faxa: 94 475 88 02

Madariaga etorbidea,9
48014 Deustu

www.deustoarrak.com
deustoarrak@terra.es



el viejo roble
* CORPECERIA *

Pedro Curbullo Suárez

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

KABIA
RUTJUX
elkargunea

INTERNETA, MUSIKA,
ESKUPILOTA ESKOLA, WI-FI,
KULTUR EKINTZAK,
TXEPETA ASTIALDI TALDEA,...

ETA OSTIALERO HANBURGARRAK,
SANDWITXAK ETA PATATA FRIJITUAK
eta giro euskaldunak!

ente kutsa 48 - San Inazio
Bilbao

ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO



AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



LUKEN LAMIKIZ IBARRA

irakaslea

TERUEL EXISTITZEN BADA, ZUBEROA ERE BAI

Badira zenbait urte Bizardunak taldeak bere abestietako batean “Teruel existitzen bada, Zuberoa ere bai” famatua bota zuenetik. Aldarri horri jarraiki, herrialde honen aldeko *kantuia* egitera nator ni ere.

Urtero hurbiltzen gara lagunok Zuberoara, itxuraz lasaia, baina ustekabez josita dagoen lurraldea baita. Asmoa maskaradez gozatzea izaten den arren, bertako herriarrek beti daukate ustekaberen bat bertaratzen den edonorentzat: kontzertuak, herriko festak, azokak, bertako jendearekin solasean aritzeko parada, Coucou de Boiseko parranda...

Pasa den asteburuan, esaterako, Mauleko taberna batean sartu bezain laster, bi proposamen aurkitu genituen sarreran: alde batetik, Niko Etxart eta Errobiren kontzertuak Urdiñarben; bestetik, Idauze-Mendiko bestak: maskaradak, afari herrikoia eta Zanonimus talde zuberotarraren kontzertua. Bigarrenaren alde egin genuen, zalantza izpirik gabe. Maskarada amaitu eta afarirako prestatutako karpata hurbildu ginen. Edateko zerbait eskatu, afarirako tiketak erosi eta bertako giroan murgildu ginen, ondo murgildu ere: bertakoekin solasean aritu, kontzertu itzelaz gozatu...

Laburbilduz, oraindik ere maskaradez goza daitekeenez, nire gomendioa Zuberoara asteburu pasa kulturala egitera joatea da, hori bai, aurretiaz ezer gutxi prestatuta eta momentuan sor daitezkeen planak baliatuta. Beti dago sorpresaren bat! Horregatik, biba Xiberua!

Maskaraden egutegia: dantzan.eus/albisteak/zuberoako-maskaradak-egutegia



IGOR CIRIZA ALLUE

Elorri bertso-eskolako kidea

KORRIKA 20

Korrika da oraintxe
aupa animatu!
Zu etorri gurekin
sofan ez geratu
honekin guk nahi dugu
euskara babestu
hizkera hau solastu
horrela maitatu

Otxandiotik hasita
denok Iruñera
mezu bakar batekin
eta hori da euskara
ikurriña eskuan
ibiliko gara
etorri Euskal Herria
korrika egitera

TXOTXONGOLOAK, IPUIN KONTALARIAK,
MAGIA, ANTZERKIA...

KÜSI ETA KASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

- | | | |
|---|---|--|
| 02/ 27 MIREN LARREA 📖
📍 Abusuko liburutegian, 18:00etan | 03/ 06 AYUDA EN TAREAS ESCOLARES 📖
📍 Zamakola eskolan, 18:00etan | 03/ 23 ANE MONNA, OSKOLA, KARRAMARROI 📖
📍 Bilborock aretoan, 18:00etan |
| 02/ 28 AMAIA ELIZAGOIEN 📖
📍 Begoñako udalategian, 18:00etan | 03/ 10 PUSKI ETA TXURRUSKI 🌀
📍 Bilboko Karmen aretoan, 18:00etan | 03/ 24 ZIRIKA ZIRKUS 🌀
📍 Bilboko Karmen aretoan, 18:00etan |
| 03/ 01 SUDURKERIAK 🦋
📍 Errekaldeko udalategian, 18:00etan | 03/ 16 IRRIEN LAGUNAK 📖
📍 Bilborock aretoan, 18:00etan | 03/ 29 EMOZIOEN KUDEAKETA 📖
📍 Errekaldeko udalategian, 18:00etan |
| 03/ 02 HOR KONPON MARIANTON 📖
📍 Zorrotzako udalategian, 18:00etan | 03/ 17 ELVI 📖
📍 Bilboko Karmen aretoan, 18:00etan | 03/ 30 AKELAR TALDEA 📖
📍 Bilborock aretoan, 18:00etan |
| 03/ 03 KIKI ETA KOKO 🌀
📍 Bilboko Karmen aretoan, 18:00etan | 03/ 20 BAPATEAN ZIRKO 🌀
📍 Zamakola eskolan, 18:00etan | 04/ 05 ODEI ARREGI 📖
📍 Iruarteta ikastetxean, 18:00etan |
| 03/ 04 EIDABE 📖
📍 Deustuko Bidarte udalategian, 11:00etan | 03/ 22 AYUDA EN TAREAS ESCOLARES 📖
📍 Errekaldeko udalategian, 18:00etan | |

🦋 DANTZALDIA 🌀 MAGIA 📖 IPUIN KONTAKETA 📖 ANTZERKIA 🌀 ZIRKOA 📖 SABEL HIZTUNA 📖 HITZALDIA

zure seme-alabekin euskaraz
disfrutatzeko baliabideak sarean:

IKUSIETAIKASI BLOGA

Aholkuak, eskulanak, bideoak,
esteka interesgarriak, zozketak...

www.ikusietaikasi.eus



B

Bilbao

B

**Bilbon
euskaraz**



www.bilbaoeuskaraz.eus

**KÜSI
ETA
KASI**

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

www.ikusietaikasi.eus



www.harrapazank.eus

Jon Arrizabalaga

Gernika. Lidergo Ekintzailea
eta Berrikuntza, 3. maila.



GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 27

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · APIRILAK 29

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 4

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 1

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · APIRILAK 29

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

ESKORIATZA · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 13

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!